

Arabako ardoak, Gasteizko bihotzean

Ardo Araba ekimenaren barruan, Arabako ardoen dastaketa egiteko aukera egongo da gaurtik astelehenera bitartean hiriburuko lau plazatan jarritako karpetan, Gasteiz On elkarteak antolatuta

||| Jon Rejado

Iristear dagoen asteburu luze honetan Gasteiza joateko asmoa dutenek hirian egiten diren feria esanguratsuetako batez gozatzeko aukera izango dute. Zehazki, Ardo Araba-ren bigarren aldia gozatzeko aukera egongo da gaurtik hasita datorren astelehenera arte, Gasteiz On elkarteak antolatuta. Ekimen honen bidez, Arabako ardoez gozatzeko modua egongo da: urtekoa, ondua, erreserbakoa eta txakolina.

Iaz egindako Ardo Araba ekimenak harrera bikaina izan ondoren, bigarrenengo honetan upeltegi gehiago egongo dira lau karpetan. Guztira, berrogei bat postu bilduko dira aurretik zehaztutako lau tokietan. Baina aurtengoan beste hainbat berezitasun ere egongo dira. Hala, Cognak Frantziako eskualdeko Angulema hiriko ordezkari batzuk etorriko dira, hango koñakaren berri emateko.

Ardo Araba, ordea, ez da mugatuko aipatutako Gasteizko lau txokoetara. Hiriko Alde Zaharrean, bihar, etzi eta astelehenera, upelen ibilbidea deitu dutena egiteko aukera egongo da. Aiztogileen kaleko zein beste hainbat kaletako tabernek, karpetan eskuragai egongo den liburuxka batean zehaztuta, euro bategatik Arabako baso bat ardo eta pintxo bat emango dute. Ekimenaren bidez hirira zabaldu nahi da Ardo Araba-ren mezua.



||| Iaz baino aukera zabalagoa egongo da aurten. monika del valle / argazki press